

bidegileak



Anizeto Olano Aita Migel Altzo (1896-1966)

Egilea:

EDORTA KORTADI OLANO


Hiru anaia kaputxino

Anizeto Olano Galarraga, *Migel Altzo* kaputxinoa, Altzo-Azpiko *Olazabal-zaharra* baserrian jaio zen 1896ko apirilaren 17an, arratsaldeko ordubetean. Hain zuzen ere, Joakin Eleizegi *Altzoko Erraldoiak* famatua egin zuen herrian eta haren *Ipintza-zahar* baserritik hurbil. Luzean 2,27 metro zituen gizon puska haren kontuak zenbat aldiz entzun ote zituen txikitan gure Anizetok, nahiz eta 35 urte lehenago hila izan!

Otzabio 789 metroko mendiaren oinetan eta Oria ibaiaren ertzean eta Tolosatik sei kilometrora dagoen Altzo gaur egun udalerrri bat bada ere, bi

herriz eta bi parrokiak osatua dago: Altzo-Azpi eta Altzo-Muño herriez eta Salbatore eta Jasokundeko Andre Mariaren parrokiez. Bien artean 500 bizilagun inguru zituzten XX. mendearen hasieran.

Arterreka, Iturrizar, Urberota eta Otzabio errekek ureztatzen duten Altzon laborantza, abelgorri hazkuntza eta basoa izan dira bizibide nagusi. Baina Olazabalzaharra baserritik hurbil baziren meategiak ere: buztinxuri edo



Anizeto Olano Aita Migel Altzo (1896-1966)



Migel Joakin Eleizegi erraldoiaren kontuak entzunaz hazi zen Anizeto

igeltso meatzak. Baina Olanotarrek ezagutu zuten gizartea baserri girokoa zen, eta erabat euskalduna.

Migel Antonio Olano Olanok, hiru aldiz ezkonduak, zortzi seme-alaba izan zituen: Migel Anjel (Josefa Urteaga lehen emaztearena), Dionisio eta Anizeto (Gregoria Galarraga bigarren emaztearenak), Maria Josefa, Jesusa, Gertrudis, Eduardo eta Arantzazu (Maria Dolores Artola hirugarren emaztearenak). Hain zuzen ere, lehenengo hiru mutilak kaputxino sartu ziren. Eta hirurak ere oso eza-gunak bilakatu ziren erlijio bizitzan eta kulturaren munduan.



Bazter hauetan egin zuen jolas Anizeto mutikoak

Migel Anjel, zaharrena, 1891n jaioa, suertatu zen ezagunena jende xehearen artean, agian, Filipinetako Guam mixioetako gotzain sagaratu zutelako Donostian 1935eko maiatzaren 5ean eta handik hilabete eskasera, ekainaren 2an, Bedoñako Juan Arana Ezpeleta *Loramendi* olerkariari egin zitzaion omenaldiko buru izan zelako.

Bigarren Mundu Gerran, 1941ean preso harturik, Japoniara eraman zuten. Gero, Tokiora bidali. 1943an, berriz, Goara. 1945ean heldu zen Guam elizbarrutira. Erromak eskatu bezala hura, eta Donostiara itzuli zen 1960an.



Migel Olano hiru seme zaharrenekin:
Migel Anjel, Dioniso eta Anizeto

Hemen egin zituen hamar urteetan, Gipuzkoako herri askotara joan zen Sendotzako Sakramentua emateko eta beste zenbait ospakizunetarako euskaraz mintzo zen gotzaina eskatzen baitzuten parrokietatik. Euskaltzaleekin ere harreman asko izan zuen.

Olano gotzain mixiolariak aurkeztu zuen, 1963an, Vatikanoko Kontzilioko Idazkaritzan euskal apaizek idatzitako «Pro Sanctae Matris Ecclesiae Libertate» gutuna. Francok eta beste zenbait agintarik gotzainak izendatzeko zuten eskubidea ezabatzeko eskatzen zitzairen Erroman bildurik zeuden gotzainei. Francoren garaiko torturak ere salatu zituen, Inazio Larrañaga Aldabako seme eta Txinako gotzain mixiolariarekin eta Mauro Elizondo Lazkaoko beneditarren abadearekin batera.

Dionisio Diego de Alzo kaputxinoak (1894-1964) elizkizunetarako liburuak argitaratu



Altzo-Azpiko eliza honetan bataiatu zen Anizeto Olano

zituen: *Frantzisko Santuaren Irugarren Ordenako Ikasbidea*, 1929an; *Erriarentzako Liturgia Christoren edo Aldareko Sakramentu Santuaren jaieguna*, 1931n. Altsasu eta Hondarribiko komentuetan zientzietako irakasle izan zen. Eta Komentutik kanpora ere saiatua zen euskarazko sermoiak egiten herriz herri. Ahozko hizkuntzari buruzko lan bat ere burutu zuen, 1961ean: *Estudios sobre el euskara hablado*.

Aitorpen hau egiten dio Santi Onandiak *Milla Euskal Olerki Eder* liburuan: «Bere gogogiroa sarri ustu eban olerkiz, arin ta sakon, batez be *Zeruko Argia* aldizkariaren orrietan. Olerkietaz gaiñera, jakintza gaietaz be asko idatzi dau, ta idazten diardu. Badaukaz erriaren itz eta esaera asko be batuta». Hona *Andre Maria aurtzai* izeneko sei olerkietatik bi, adibide gisa:

Ori umetxo zoragarria,
Bai dula Mariak,
Joseren andriak!

Goiko esnez lumak txuritua,
Jainko-malkoz begiak garbitua,
Oi! Zeiñen zolia
Dan uso garbia!

Ao txikia erdi-idikirik,
Itxirik begiak,
Lotxo dagi aurtxoak...
Jaungoikotxoaren masallian,
Lili gorriak bezin gorrian
Amak bere ezpañak
Ditu ezarriak.

Ahozko euskarari buruzko lanaz Koldo Mitxelenak ere goraipe handiak egiten dizkio liburuaren hitzaurrean Aita Dionisio Altzori: «Bildu duen materialak bakarrrik ere onetsiko luke liburu hau, baina bilketa hutsa baino zerbait gehiago egin du. Azaleko itxuraren azpian dagoen joera iraunkorra atzematen daki Aita Altzok, hau da, axal mugikorren azpian hezurdura trinkoa sumatzen. Ez da biltzaile soila, sailkatzaile begiak ditu (edo gramatikari begiak, nahi baduzu)».



Migel Olano aita Migel Angel (gotzaina), Anizeto eta Dionisio semeekin, Altzoko parrokoa eta ahaide batekin

Anizetoren ikasketak

Anizetok ere, Eusko Ikaskuntzen suspertzaile eta euskal hezkuntzaren eta pedagogiaren bultzatzaileak, aurreko bi anaien bidea hartu zuen. Altsasuko komentuan egin zituen lehen ikasketak eta Zangozan jantzi zuen fraile-jantzia eta *Migel Altzo* izena hartu kaputxinoen ohiturari jarraiki, 1912ko abuztuaren 12an. Hondarribian ikasi zuen filosofia 1912-16 bitartean. Teologia, berriz, Iruñean, 1916tik 1920ra. Apaiztu ere Nafarroako hiriburuan apaiztu zen 1920an. Teologia ikasten ari zen bitartean batxiler titulua ere lortu zuen, 1918ko urriaren 14an.

Buruz oso argia, nonbait, Bartzelonako eta Madrilgo Unibertsitateetara igorri zuten goi-ikasketak egitera, 1920-22 urteetan. Zuzenbide Zibilean eta Filosofia eta Letretan lortu zuen lizentziatura; Psikologian, berriz, diplomatua. Ondoko bi urte Marokon egin behar izan zituen soldaduen kapelau. Baina koartetik kanpora ere lana franko egin zuen Melillako bazter-auzoetan. Akermango Arbáako Zocon elizatzko bat ere eraiki zuen. Ondoren, Erromara joan zen 1925-26 ikasturtean Eliz-zuzenbidean lizentziatua eskuratzeko.



Zortzi senideak gotzaina erdian dutela

Lekarozen irakasle

Erromatik itzulitakoan Lekarozko ikastetxera eraman zuten Filosofia, Zuzenbidea eta abar irakastera. Bera izan zen 1926-1936 hamarkadan ikasketaburu ere. Hamaika sermoi ere egin zuen aldi horretan Baztan eta Bertizaranako herrietan. Garai honetan erakutsi zituen bere jakintza eta gizatasun maila ere, Jose Ariztimuño *Aitzol*, Joxemiel Barandiaran, Manuel Lekuona eta Jorge de Riezu bezalako jakintsuek aitortzen dutenez. Garai



Anizeto Olano *Migel Altzo* Afrikan soldaduen kapellau

honetan ekin zion Iruñeko *Euskeraren Adiskideak*, Bilboko *Euzko Ikastola Batza* eta Donostiako *Euzkaltzaleak* elkarteetan eta *Yakintza* aldizkarian lan egiteari. Idazlanik gehienak kaputxinoetako deituraz izenpe-tzen bazituen ere, *Aita Amaialde* izenordeaz ere argitaratu zituen bat baino gehiago.

Gizon gozoa, adeitsua eta jakintsua, kaputxi-no talde jakintsua biltzen jakin zuen Anizeto Olanok Lekarozen: Aita Donostia, Jorge de Riezu, Bonifazio de Ataun eta abar. Manuel Maria Apalategi *Bonifazio Ataun* kaputxinoa ez da gerra ondokoentzat Donostia eta Riezu bezain ezaguna, zahartzaroan itzuli baitzen, Francoren larderiari ihesi, Argentinan urte asko egin eta gero. Baina asko idatzia da eta euskarari buruzko lan bat baino gehiago ondua, *Sabiaga*, *Gudariarteko* eta *Bonifazio Ataun* ezizenez: *Amal*, *Gramatika*, *Euskal Aditza* eta abar.

Hala ere, kaputxino talde iaio bat sortzea baino gehiago egin zuen Migel Altzok: euskal kulturaren gorpuzten eta sendotzen ari ziren taldeak eta mugimenduak koordinatzen baitzituen.

Idatzi, berriz, filosofiaz, pedagogiaz eta etnografiaz idatzi zuen. *Eusko Ikaskuntza*-ko kide eragilea izan zen, baita Batzorde Zuzendaritzako kide ere, 1934-36 bitartean. *RIEV* agerkarian eta Aitzolek gidatzen zuen *Yakintza* aldizkarian eta beste euskal kultur argitalpenetan lanak argitaratzen zituen eta

aldizkarietara eta zuzendarietara ere laguntzen ziren. Eusko Ikaskuntzako nazioarteko ikastaroen eta Lehen Hezkuntza Batzordeko buru izan zen.

Euskal Filosofiaren Historiari buruzko liburua argitaratu zuen, Aitzolen hitzaurrearekin, 1934an: *Filosofia Vasca*. 1936ko gerra sutu zuteanean Donostian ari zen nazioarteko jardunaldi

batzuetan. Baionara alde egin zuen aurrena; gero Bordeleko Begles herrian babestu zen, 1936-40 bitartean. Apaiz lanetan jardun zuen eta Francoren mendekuari ihesi joandakoei laguntzen saiatu zen, Verdier kardinala buru zuen Euskaldunen Adiskideen Elkarte Internazionalarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta iparraldean babestutako iheslariekin batera.



Migel Olano eta Maria Dolores Artola (hirugarren emaztea) zortzi seme-alabarekin

Ameriketara bidean

Bigarren Mundu Gerraren arriskuak Argentinarako bidea hartzera behartu zuen, komentuko nagusien baimenaz, 1940an. Bordetik abiatu zen urte horretako ekainaren 12an, *Groix* itsasontzian. Buenos Airesko portura, berriz, urriaren 4an heldu zen, ibilaldi luze eta arriskutsuaren ondoren, *Astri* itsasontzian.

Argentinara iritsi orduko, Cordoba hirira bidali zuten, komentuko nagusi eta parrokiako erretore. 1942-48 bitarteko txangoa egin

zuen. Sei urteren buruan, Buenos Airesko Pompeya Berriko nagusi eta erretore izendatu zuten, 1948-51 aldirako. Nekotxeako Fundazioaren arduradun, 1951tik 57ra.

Hain zuzen, 1945eko apirilaren 15ean zabaldu zen *Euskal Etxea*. Hauek osatu zuten Batzorde Zuzendaria: Kleto Garate lehendakariak, Jon Bilbao lehendakariordeak, Patxi Zubillaga idazkariak, Alfredo Bilbao idazkariordeak, Luis Mugerza diruzainak, Pedro Zabala diruzainordeak eta Pedro Arozarena, Inazio Larraza, Ismael Larraburu, Manuel Iri-



Jesusaren ezkontza egunean, eskuinean Anizeto, senideetan maiteena

berri, Manuel Bidegain eta Zezilio Senosiain batzordekideek.

Migel Altzo Nekoetxeatik Llabalol-eko *Euskal-Etxea* eskolara aldatu zen, 1957-59 arte. Berriro Buenos Airesko Pompeya Berrira itzuli zen, 1960an. Han hil zen Migel Altzo 1966ko urtarrilaren 3an, parkinson gaitzak menderaturik.

Ameriketara elkarrekin ibili ziren *Bonifazio de Ataun* kaputxino kideak zioenez, berebiziko apaiz lana egin zuen Anizeto Olanok Argentinan;

ez omen zen gelditu ere egiten. Cordobako Jesusen Bihotzen parrokiara ikaragarriko lana egin omen zuen behartsuen alde eta gizarteko arazoetan. Zutik dirau oraindik Migel Altzok 1943ko apirilaren 5ean zabaldua-ko Medikuntza Kontsultategiak, dohain lan eginez.

Gerrateak eta atzerriak zigortutako belau-naldi hark ere ongi ezagutu zituen Altzoren jakinduria eta Euskal Herriarekiko maitasuna, lagun eta laguntzaile ona izan baitzuen Argentinan ere.



Anizeto Olano, Amanda Olano, Panico Peruko nuntzioa, Eduardo Olano, J. A. Irazusta, Elorza Moyobambako gotzaina, Limako nuntziaturan

Euskal filosofia

igel Altzok, XX. mendearen erdi alde-
ra arteko gizon-emakume askok beza-
la, hezkuntza entziklopedikoa eta oro-
korra zuen, batez ere, giza zientzietan.
Landu ere arlo hori landu zuen bere-
ziki. Bere familiak eta Bittori Etxe-
berriak gordetzen duten haren liburu-
tegia ikusi besterik ez da.

Entziklopedizaletasun hau nabarmena
da gureganaino heldu diren haren
idazlanetan ere; 1934an, Donostiako
Yakintza-k argitaratutako *Filosofia Vas-*
ca liburutik hasita batez ere. Altzoren
iritziz, kultura filosofikoak jarriko diz-
kigu gure eskuetan bizitzaren eta
zientzia enpirikoaren gobernu eta

hark egingo gaitu gure ideien eta geuren
buruen jabe ere: «La cultura filosófica, con el
sabio profesor de la Universidad de Stras-
burgo, Baudin, nos pondrá en nuestras
manos el gobierno de la vida y de la ciencia
empírica, nos dará el dominio de nuestras
ideas y el dominio de nosotros mismos».

Herri berri batek kultura intelektual ez
beste guztia asma dezake bat-batean Anizeto
Olanoren ustez, baina herri zahar batek ez
diezaioke bereari ukorik egin, amildegian
erori nahi ez baldin badu, behintzat: «Un pue-
blo nuevo puede improvisarlo todo menos la
cultura intelectual. Un pueblo viejo no puede
renunciar a la suya sin extinguir la parte mas
noble de su vida, y caer en una segunda infan-
cia muy próxima a la imbecilidad senil».



Loramendiren omenaldian Bedoñan, 1935eko ekainaren 2an, Migel Anjel Olano gotzain egin berria oroitarrria bedeinkatzen, Aitzol eta Aita Altzo eskuinean dituela

Adierazpen hauek, liburuaren hitzaurrean Jose Ariztimuñok dioenez, Donostiako Euzko Pizkudearen egoitzan egin zituen Altzok, 1934ko martxoaren 27an. Hitzaldiaren arrakastak liburu batean argitaratzera behartu zuen.

Hitzaldi hura, Aitzolen ustez, Eusko Pizkudearen aldeko gorespenezko aldarrikapenean txertatzen zen: «gero eta zabalagoa den euskal kulturaren pizkundean, alegia. Egunetik egunera loratzen baitira adierazpen artistiko eta zientifikoak. Olerkia, antzerkia, euskal kazetaritza gero eta indar eta garapen handiagoa ari dira lortzen; historiari eta

etnografia-folkloreari buruzko ikerketak asko aurreratu dira; ekonomi eta finantza ikasketak sasoi betean daude».

Eta euskarak balio duela filosofiako adieragaiak azaltzeko baiesten du Anizeto Olanok bere liburuan, Axular eta Etxeberri, Frantzisko Vitoria eta Juan Zelaia, Karrantza eta Martin Azpilikueta, Xabierko Frantziskoren osaba, aipatuz. Ahazturik zeuden euskal filosofo eta pentsalariak nahi izan zituen Aita Altzok berreskuratu lan honen bidez.

Baudin-en eta Laverde-ren filosofiari jarraiki, herri bakoitzaren pentsamendu nazionala herri bakoitzaren ondareztat jotzen du



Aitzol, Azkue, Aita Altzo eta Orixe Lekeition 1936ko ekainaren 28an. Azkuek euskarari buruz egindako lan eskerga goraiatu zuen Anizeto Olanok bere hitzaldian, Euskadin egin zuen azkenetakoan

Olano kaputxinoak. Iritzi hori oinarritzeko pentsalarien zerrenda luzea dakar: hasi lehen mendeko Quintilianotik, segi Prudenziori, Nafarroako mediku-filosofo arabe eta juduei, Nafarroako Monastegietako fraileei, Nafarroako Carlos Ilri, Pedro Lopez Ayala kantzillerrari, Bianako Printzeari, Lope Ocamicari, Frantzisko Vitoriari, Baltasar Ayalari, Martin Azpilikueta, Bartolome Karrantza, euskal jesulagunak, Juan Huarte de San Juan,

Miguel Servete eta Juan Zelaia eta eskola askotako filosofoei, Bergarako Mintegiari, Valentin Foronda, Xabier Muniberi eta XVI-XIX. mendeetako euskal idazleei. Altzoren ustez, pentsamenduaren zorrotasuna eta eraginkortasuna da euskal pentsamenduaren ezaugarrietako bat. Euskal pentsalariak, Altzoren ustez, hauxek eman dizkiete pentsamendu unibertsaleko korrentei: balio etiko-kristauak.

Hizkuntzen arteko borroka

Anizeto Olano altzoarraren beste kezka hau da: bizitzako eta kulturako arlo guztietarako euskara gai egin. Bere anaiak bezalaxe, Anizeto ere euskaraz bizi izan zen kaputxino sartu aurretik *Olazabalzaha*r baserrian eta Altzo-Azpiko elizan eta lagunartean. Kaputxinoetan ere euskaraz bizitzen eta bere sentimendu eta iritziak ere euskaraz adierazten saiatzen da. Baina, industriaren eta herrien hazkunde bizkorra zela eta, euskara eraso handia ari zen jasaten. Euskadin eta Europan gertatzen ari den hizkuntzen arteko borroka da Migel Altzorentzat buruhaus-terik eta kezka zientifikorik nagusienetako.

Euskadiko eskoletarako elebitasuna, euskarazko eta gaztelaniazko hezkuntza, onartua izango zela uste zen 1931ko udaberrian,

ordurako Kataluniarako onartua baitzen. Baina ez zen hala suertatu. Hori dela eta, *Euskaltzaleak* elkarteak elebitasunari buruzko Eusko Biltzarra antolatu zuen Donostian eta Bilbon, abuztuaren 26an eta 29an. Mila maisu eta maistra bildu ziren, eskola nazionaletatik eta auzo eskoletatik. Sekulako arrakasta izan zuten, beraz, Donostiako Salón Novedadesen eta Bilboko Institutu Probin- tzialean egin ziren hitzaldi hauek.

Bonifazio Etxegarai (lehendakaria), Jose Ariz- timuño *Aitzol* (idazkaria), Migel Altzo, Lan- deta, Vilallonga, Apraiz, Aranguren eta Uran- ga, *Euskaltzaleak* eta Eusko Ikaskuntza-ko ordezkariak izan ziren mahaiburuko.

Migel Altzok maisuki eta trebetasun handiz ikertu eta argitu zituen hizkuntzei buruz Europak zuen legeria berria eta gerraondo-



Eusko Ikaskuntzako Batzarre Nagusia: Ezkerretik, zutik, Migel Altzo, Basterretxea, Barandiaran, Klaudio Armendariz, A. Donostia, Allende Salazar, A. Apraiz, J. Garate, Manuel Irujo eta Pierres Garmendia; eserita, Urkijo, T. Arantzadi, J. Elorza, Leremboure, J. Zaragueta eta S. Altube

ko gutxiengo hitzarmenak. Hala diote orduko egunkariek: «Podemos asegurar que no dejó de indicar ni una sola nacionalidad europea donde exista este conflicto y se trata de solucionarlo, que no mereciera el atento estudio del sabio capuchino».

Hizkuntzen arteko eramankortasuna, elkarri amore ematea eta elkarrekiko onarpena eta begirunea aldarrikatu zituzten hizlari guztiek. Euskara modu onean sartu behar zela eskoletan eta ez era larderiatsuan eta gogorrean. Iritzi hori gailendu zen guztien ahoetan.

Migel Altzok Eusko Ikaskuntzako Pedegogia Saitetik harreman handiak izan zituen Pierre Bovet, M. Ladislao Flokierski, Aldred Davies, M. Georges Dwelshauvers irakasleekin, Ginebra, Brusela, Cracovia, Paris, Gales eta Bartzelonako unibertsitateetako irakasleekin, hain zuzen.

Biltzarraren ondorio izan zen *Lucha de idiomas en Euskadi y Europa* liburua. Estatutuaren puria eta burruna itzali zenean argitaratu zen, 1935eko martxoan. Euskal kulturaren pizkundean ospetsu bihurtu zirenek idatzi zuten: Migel Altzo, Bonifazio Etxegarai, Eduardo Landeta eta Jose Ariztimuñok. Hizkuntzen ikuspegi zabala eta anitza eskaintzen dute liburu horretan, euskararen bizi-raupena eta Euskal Herriko kultura nazionala kontua direla beti ere.

Historian zehar ibilaldi luze eta gogoetagarria egiten du Anizeto Olanok. Gainera,

Finlandia, Gales, Belgika, Suitza, India eta abarretan hizkuntzen arazoei eman zaien irtenbidea azaltzen du. Neska-mutil eusko-erdaldunei euskara irakasteko erabili behar diren metodoak eta psikologiaren, pedagogiaren eta historiaren aldetik ezarri behar diren oinarriak ere adierazten ditu.

Ama-hizkuntzan eskolatua izateko Zuzenbide Internazionalak haurrari aitortzen dion eskubidearen ikerketa labur bat ere egiten du Altzok, Nazioarteko Hitzarmenak arakatu.

Hizkuntza da, Altzorentzat, herri baten arima, arnasa. Maisu-maistrak, berriz, arima horren arkitekto eta eskultore dira. Anizeto Olanoren iritziz, lehen hezkuntza ama-hizkuntzan eskaini behar da. Etxeko hizkuntza hori ongi sendotutakoan hasi behar da bigarren hizkuntza irakasten, asignatura gisa.

Honela laburbiltzen du Jose Manuel Odriozola altxoarrak bere herritarraren pentsaera

—

El Derecho Internacional tiende a considerar como derechos internacionales del hombre los derechos de los grupos y minorías étnicas de lengua y religión. Esos derechos van siendo reconocidos por todos los Estados que, elevándose sobre el campo pasional, quieren desarrollarse en el campo sereno del Derecho Natural y cristiano que ha ido infiltrándose en el Derecho Internacional merced a las enseñanzas y diplomacia de la Iglesia católica.

El pueblo vasco también espera con ansia el reconocimiento por el Estado de sus derechos étnicos, de lengua y religión.

M. OLANO DE ALZO

Eusko haur erdaldunak nola eskolatu


Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian lanean:

Aita Altzoren eskuharmena, haziera elebidunaren inguruko auzi pedagogikoetan, aski nabarmen gailentzen da. Aintzindari eta

bide-erakusle ageri zaigu gai horretan. Hasi berria zen euskarazko eskolaketaren beharrak eraginik, harreman estuak izan zituen beste herrialdetako adituekin. Ama-hizkuntza eskolan sartzearekin batera ugaldutuziren hainbat eta hainbat zalantza eta buruhausteri ahalik eta erantzun zientifikoena eman gogoz, Galesen, Belgikan, Katalunyan eta antzeko arazoetan murgildurik zeuden herrietako pedagogiekin lotura hertsian dakusagu.

PEDAGOGIA VASCA

Métodos para el estudio del problema bilingüista.—Plan para su estudio en Vasconia


 Lenguaje es el instrumento intelectual supremo. La lengua materna forma una propiedad personal de uno. No hay lengua que pueda suplantar a la materna. Frank Smith, profesor en Armstrong College, Newcastle, afirmaba que la lengua de una nación es una expresión del pensar nacional; por este hecho tiene particularidades que le son propias. Su estructura ha nacido de las necesidades y del genio de la nación; sus palabras se han bañado en una atmósfera afectiva que es única.

La lengua materna es más que lengua: es el fundamento mismo de la personalidad. El lenguaje en general es instrumento de expresión;

Anizeto Olanok *Yakintza* aldizkarian pedagogiaz idatzitako lanetako bat.

PEDAGOGIA

Métodos a emplear en la enseñanza del euskera a los niños vasco-erdeldunes

 E me ha pedido mi colaboración, y mis aficiones a estos temas me obligan a prestarla dentro de mis modestos alcances. Los vasco-erdeldunes, a quienes pretendemos enseñar el Euskera, la lengua de la raza, podemos clasificarlos en a) niños, b) adolescentes y c) adultos. Esta clasificación afecta a todo el ser psico-fisiológico por causa del condicionamiento necesario fisiológico, y por las conexiones íntimas entre lo psíquico y lo fisiológico. Pero nuestro estudio irá dirigido principalmente al niño vasco-erdeldún y en parte al adolescente, en quienes aún están en período de formación las aptitudes y funciones psico-fisiológicas: haremos también

Haurrek ama-hizkuntzan eskolatuak izateko duten eskubideaz



Migel Altzo Irazustari meza berriko sermoia egiten Limako pasiotarren San Isidro elizan


Euskal kultura

Erljioarekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendua eta erantzukizuna elkarloturik bizi izan zituen Migel Altzok bizitza osoan. Hain zuzen, erlijio ikasketak egiten ziharduela ohartu zen bihotzaren eta izatearen barne-barnetik eta sakon-sakonetik maite eta zerbitzatu nahi zuen herriaren kultura eta hizkuntzaren balioaz eta ederraz. Eta horien aldeko jokabideari hil arte eutsi zion, baita Argentinako atzerrialdian ere.

Aita Altzo, bere giza eta erlijio nortasuna garatu bezain azkar, murgiltzen da abertzaleen inguruko kultur mugimenduetan. Migel Antonio Olano Olanok, Altzoko alkate izan zen aita integristak, ez zituen semeak bere-

ganatu. Gregoria Galarraga Garmendia amaren errepublikazaletasunak, zenbait kaputxi-no abertzale ospetsuk eta herrietako giroak euskaltzale eta abertzale bihurtu zituen.

Migel Altzo berehalaxe lotzen zaiou *Euskaltzaleak* taldeari eta Aitzolen *Yakintza* aldizkariari, zuzendariarentzat txostenak burutuz, aholkulariak aurkituz eta herrietan material biltzaleak eta berriemaileak bilatuz. Herrietan bertsolari jaialdiak eta kultur jardunaldiak antolatzen ere laguntzen dio Aitzoli. Koldo Mitxelena Kulturunean dauden Aitzolen paperen artean ikus daitekeenez, Aste Santurako sermoiren bat edo beste ere eskatzen dio Ariztimuñok Olanori.



Hizkuntzen arteko gatazkari buruz Migel Altzok, Bonifazio Etxagarai, Eduardo Landeta eta Aitzolekin argitaratutako liburua



Euskal filosofiaren historiari buruzko lana

Jakintzu, aditu eta Unibertsitateetako irakasle ospetsuekin izan zituen harremanak Altzok. Lehen aipatu ditugu kanpoko batzuk. Aipa ditzagun orain etxekoak. Hain zuzen, Apraiz, Barandiaran, Donostia, Etxegarai, Leizaola, Azkue, Orixe, Lizardi, Labaien, Jautarkol, Landeta eta abarrekin izan zituen harreman estuak. Idatzi ere garai hartako aldizkari askotan idatzi zuen: *Euzko Deya*, *RIEV*, *Yakintza*, *Zeruko Argia*, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* eta abarretan.

EUSKO-UMEAK IKASTEN

Umeen azieran gauzik bearrekoena umea ondo ikastea-da. Zerbait berexia ba-du ume bakoitzak: erri bakoitzak ere bai. Erri bateko umeak, ordea, lotutzen ditun zerbait ba-dute bere izakeran.

Elka lotu ta besteengandik berexten ditun zerbait ori erri bakoitzean ikasi bear da.

Bearrezko dute ori irakasleak, irakasle izan bear ba-dute: aurrak azi ta ezi nai ba-dituzte.

Eusko-aurrak ikasten, oien azi-adinak ta mallak oartzen nor saiatu da? Gutxi: iñor izan bada.

Beste erritan bai. Lenena aurrak ikasten, oartzen,

Haur euskaldunak euskaraz eskolatuak izateko eskubideaz

Buru-belarri sarturik jardun zuen Migel Altzok euskal kulturgintzan, batez ere elebitasun eta pedagogia arazoetan. Horren leku-ko dira bere idazlanak. *Yakintza* aldizkariak argitaratu zituen gehienak: *Pedagogía Vasca*, *El factor familiar en la enseñanza de los hijos* eta *Bilingüismo*, 1933an; *Métodos a emplear en la enseñanza del euskara a los niños vasco-erdaldunes*, 1934an; *Eusko Ikaskuntza Deia* aldizkarian, 1934an, *Eusko umeak ikasten*. Berriro *Yakintza*-n beste hiru lanok: 1935ean, *El derecho a la instrucción primaria en la lengua materna ante el derecho internacional positivo*, *D. Julio Altadill*, *Necrología* eta *Métodos usados en el estudio de la capacidad mental del niño bilingüe*. Beste bi lan *Euskaltzaleak* elkarterako idatzi zituen: *Filosofía vasca* 1934an; *Lucha de idiomas en Euzkadi y Europa*, 1935ean. Gerra aurreko azkenekoan ere *Yakintza* aldizkarian argitaratu zuen, 1936an: *Orientaciones para el estudio científico del bilingüismo en el País Vasco*.


Eusko umeak ikasten

usko Ikaskuntza Deia aldizkariko artikuluan ederki laburbiltzen du bere pentsamendua Migel Altzok. Hona osorik gaurko idazkerara aldaturik:

Umeen hazieran gauzik beharrekoe-na umea ondo ikastea da. Zerbait berexia badu ume bakoitzak: herri bakoitzak ere bai. Herri bateko ume-ek, ordea, lotutzen ditun zerbait badute bere izakeran.

Elkar lotu eta besteengandik berex-ten dituen zerbait hori herri bakoit-zean ikasi behar da.

Beharrezko dute hori irakasleek, ira-kasle izan behar badute: haurrak hazi eta hezi nahi badituzte.



Aitzolen paperen artean dagoen Migel Altzoren gutuna

Eusko haurrak ikasten, horien hazi-adinak eta mailak ohartzen nor saiatu da? Gutxi: inor izan bada.

Beste herritan bai. Lehenena haurrak ikas-ten, ohartzen, nabaritzen saiatu dira. Haurrak ikasten saiatu diren herriek aurre-rapen haundiak egin dituzte umeen haziera ta hazibidean.

Aurrerapen-sail eta maila guztietan herri horiek dijoazte lehenena.

Eta ez da harritzeko: ondo ezagutu ezkerro, biderik eta indarrrik galdu gabe bakoitza

bere izakerak eskatzen duen arabera hazia-razten baita.

Begira: Beljikan aspaldi xamarretik eta azkeneko garaietan Decrolyk hori egin zuen. Gales-en, Ingalaterrako herri-barrutian, hori bera egin dute eta ari dira Saer, Smith eta Hughes.

Suizan lehen Epstein eta orain Bovet eta besteak ere hortan ari dira.


Eta hala beste herritan ere, guztiak ez aipatzeko.

Haurrak ikaste hortan irakasleak, maisuak, izan dira laguntzaile onenak: eta hala behar.

Ez uste gauza zaila dela ikasbide hori.

Entzunak dituzute, noski, orain toki guztitan ta asko erabiltzen diren «test» edo argibide, galderak, hitzez eta idatziz.

Bide hortatik ikasi eta ezagutu dituzte herri horiek bere haurrak eta umeak.



Anizeto Olanok Aitzoli bidalitako lan baten zatia

Baina «test» edo argibide eta galdera horiek nola egin, eta zer gai eta zer ariketa ibili hortarako?

Hori eginda bialduko zaizkie irakasle edo maisu guziei. Irakasleek bide errex bat ibili behar dute: bialduko zaizkien «test» edo argibideak edo galderak, haurrak ohartu eta aztertuaz, bete edo erantzun eta horrela itzuli Eusko Ikaskuntzara: beste egitekorik ez dute: ez da gutxi: baina ez da gauza zaila.

Hori bai: argibide eta galdera horiek ahal duten hobena erantzun eta bete behar dira: hortarako haurrak ondo ohartu: umeekin ordu batzuk dabilenentzat ez da asko hori.

Gauza ondo egiteko, hori ondo eta gogoz egingo duten irakasle asko xamar behar ditugu: alderdi eta toki guztietakoak; toki batzuek zerbait berexia badute-ta. Batez ere: euskaldun herrietan eta euskara eta erdara nahaspilean ibiltzen dituzten herrietan ikasi behar ditugu haurrak.

Haur horiei bere jaio-hizkuntzan ez hazitzeak zer atzerapen eta eragozpenak dakartzkien horrela ikasiko dugu apur-apurka.

Hori jakin ezkerro eragozpen horiek kentzen saiatu eta lehiatuko gara.

Orduan bai aurrerapenak egingo dituela gure herriak haur eta gazte hazieran.

Euskaldunak hori gabe ez dira motelak: baina bide hortatik bere azkartasuna agudo erakutsiko dute.

Irakasleok. Hori egiteko gertu zaudetenok
zuen izena eman.

Decroly psikologo eta pedagogo ospetsuari
eta Piaget eta Gali jakintsuei jarraituz, hau-
rren adinari, hizkuntzei, etxeko giroari, ingu-
runeari eta abarri buruzko datuak biltzeko
galdekizun baterako argibideak eskaintzen
zituen Altzok azkeneko lan horretan, *Yakin-*

tza aldizkarian, 1936ko Ilbelta-Otsaila alean
argitaratutako lan horretan. Ez dakigu zer
erantzun izan zuen, ezta zer datu bildu
zituen ere, bost hilabete besterik ez baitzi-
ren falta uztailaren 18 madarikatu hartarako,
euskaldunok ere «diciochojulio» deitzen bai-
kenion Francok bere oldarraldi odoltsua hasi
zuen zoritxarreko egunari.

Izaera irekia eta gozoa

Nik ez nuen Migel Altzo osaba ezagutzeko zoririk izan. Baina hari buruzko kontu asko entzun diet haren senide, ahaide eta lagunei, baita euskal kulturako ospetsu batzuei ere.

Migel Anjel Olano anaia gotzainak esan ohi zuenez, txikitatik zen Anizeto oso argia eta erantzukizun handikoa, meharra eta dotorea, beldurtia eta barnekoia eta elizkoia. Anaia gotzainaren ustez Migel Altzo zen hiru anaia kaputxinoetan burutsuena eta jantzi-ena. Hizkuntzak ikasteko sekulako erraztasuna zuen. Erraz mintzo ohi zen euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, italieraz, latinez, grekoz, tagaleraz eta txamorroeraz.

Beste anaiak baino erraztasun handiagoa zuen harremanetarako ere. Lagun asko eta handiak

egin zituen Lekarozen, Euskal Herrian eta Argentinan. Edozein pentsaeratakoek oso maitea eta errespetagarria zuten. Leizaola, Barandiaran, Lekuona eta garai hartako idazle eta kazetari askok aitortzen dute hori. Aita Jorge Riezuk mila pasadizo kontu ohi zituen Migel Altzok harremanetarako zuen artearen eta moldearen adierazgarri.

Manuel Apalategi *Bonifazio Ataun* kaputxinoarentzat burutik oinetaraino erlijiosoa zen Anizeto Olano, oso jantzia eta kultura unibertsalari oso irekia, eta aldi berean, euskal kulturaren maitale eta aldele sutsua. Oso zorrotza omen zen bere buruarekiko eta lankideen jarrerarekiko. Leizaola, Barandiaran eta Lekuonarentzat ere oso gizon irekia zen eta 1920-1930 hamarkadako Eusko Pizkundeari oso lotua: urrutira begira suma



Jon Andoni Irazusta tolosar legegizon, EAJko diputatu eta nobelagilearen meza berrian Manuel A. Odría Peruko lehendakaria eta Carmen Berckmeyer emaztea aita-amabitxi dituela eta Migel Altzo sermolaria, 1951n, Limako pasiotarren elizan

zitekeen Europa kultur anitzean euskal kulturari leku egin nahi ziona. Kezka horrek bultzatuta azaldu ohi zen aita Donostiarekin Eusko Ikaskuntzako bilera eta jardunaldi guztietara.

Bere buruarekiko ez zuen gurikeriarik; gutxi beharrekoa baitzen. Baina komentuko bere lagunentzat, eskolako ikasleentzat, etxekoentzat eta adiskideentzat oso zabala zen. Arantzazu eta Gertrudis arreba gazteenek gizon gozotzat zuten. Gazterik umezurtz geratu zirenez, aitatzat ere bazuten bost txikienek. Edozertan laguntzeko eragozpenik ere ez zuen. Gogoan izan ohi dute, uholde batean Oria ibaiak gainez egin zuenean, habitoa kendu eta, Alegiko dendan nola jardun zuen lokatza kentzen. Olanotarrei sekulan ez diet Migel Altzoren kontrako ezer entzun. Zortzi senideetan bera zuten maiteena eta kuttunena.



Nekotxeako Euzko Etxea, 1945eko apirilaren 15ean eraikia. Hamaika lan egin zuen Aita Altzok, 1951tik 1957ra bitartean

Goratarreak

Eskola elebidunak, euskarazko auzo-eskolak, ikastolak, euskara, euskal kultura, askatasuna, abertzaletasuna, guztia, zapuztu zuen gerrak eta ondorengo larderiak. Eta abertzaletasunean ez ezik, euskaltzaletasunean ere nabarmendu zirenek atzerrirako bidea hartu behar izan zuten, espetxeratuak edo hilak izatea nahi ez baldin bazuten, behintzat, beste apaiz eta euskaldun askoren antzera. Eta Anizeto Olanok, *Migel Altzo* kaputxinoak ere, ipar Euskal Herrira ihes egin zutenei laguntzen jardun ondoren, Argentinarako bidea hartu zuen 1940an.

Hogeita bost urte egin zituen han lanean, 1965 urtarrilaren 3an hil baitzen Pompeya Berrian, Dionisio anaia, *Diego Altzo*, baino bi hilabete eta erdi geroago. Hain zuzen, 1964ko urriaren 20an hil baitzen Lekarozen *Olazabalzaharreko* bigarrena. Migel Anjel Olano, etxeko senide zaharrena, Guamgo gotzaina, berriz, Manilan hil zen 1970eko maiatzaren 2lean, ordezkotzain berria sagaratzeko ospakizunera joan baitzen haraino.

Altzo-Azpi herriak plazatxo bat eta elizaren horman oroitarri bat eskaini zien herriko hiru seme ospetsuei, esker onez.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak *Migel Altzo* beka sortu zuen, 1996an, eskolako materialeak eta ikus-entzunezkoak sortze arren. Egia esan, horri esker, bideo, audio eta



Migel Altzo 1966ko urtarrilaren 3an hil zen Buenos Airesen



Hiru kaputxino euskaltzaleei udalak eta elizak eskainitako oroitarria

software asko eta garrantzitsuak sortu dira Euskal Herrian eskoletarako.

Euskal Literaturaren historia idatzi dutenek, Xabier Altzibar, Auñamendi, Koldo Mitxelena, Santi Onaindia, Juan San Martin, Patri Urkizu eta bestek, gogoan izan dute Migel Altzo. Andoni Astigarragak eta Bonifazio Ataunek ere egin zioten gorai purik Migel

Altzori *Alderdi* eta *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* aldizkarietan. Jose Manuel Odriozolak ere aipamen sakona eskaini zion U.E.U, Soziolinguistika sailean, *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian* izeneko liburuan.

Izan ere, bidegile izan zen benetan hezkuntza munduan Anizeto Olano, *Migel Altzo* kaputxinoa.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Kortadi-Olano familia*
- *Urteaga-Olano familia*
- *Juan Ignacio Elozegi*
- *San Telmo Museoa. Donostia*
- *Archivo Koldo Mitxelena. Donostia*
- *Patricio Urkizu*
- *Biblioteca Universidad Deusto-Donostia*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1876-2 (Lan osoarena)
84-457-1878-9

L.G.: VI-562/02

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística